HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

IRAGARKIA, 497/07 administrazioarekiko auzi-errekurtsoan interesaturik daudenak epatzeko dena. 7639

IRAGARKIA, Joseba Julen Zabala Martín jaunak ezarritako gorako errekurtsoan interesdun direnak epatzeko dena. 7641

LAN ETA GIZARTE GAIETAKO MINISTERIOA

IRAGARKIA, erantzukizun enpresarialeko 2001/31 espedientea jakinarazteari buruzkoa. 7642

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

ANUNCIO de emplazamiento de terceros/as interesados/as en el recurso contencioso-administrativo n.º 497/07. 7639

ANUNCIO. Emplazamiento a terceros interesados e interesadas en el recurso de alzada interpuesto por don Joseba Julen Zabala Martín. 7641

MINISTERIO DE TRABAJO Y ASUNTOS SOCIALES

ANUNCIO relativo a la notificación del expediente de responsabilidad empresarial n.º 2001/31. 7642

# Xedapen Orokorrak

## KULTURA SAILA

### 1932

54/2008 DEKRETUA, martxoaren 18koa, Euskadiko Museoen Aholku Batzordeari buruzkoa.

Euskadiko Museoei buruzko abenduaren 1eko 7/2006 Legeak, VII. kapituluan, Museoen Aholku Batzordea sortu zuen, Legean bertan finkatutako eskumen eta aginpideak gauzatzearekin zerikusia duten gaietan Eusko Jaurlaritzaren organo aholkularia izan dadin; gainera, haren funtzioak finkatzen ditu, eta Batzordearen osaera erregelamendu bidez arautuko dela dio, osaeran Euskadiko Museoen Sistema Nazionalean inplikatutako sektore eta erakunde guztiek parte hartzen dutela bermatuta.

Horiek horrela, beharrezkoa da Museoen Aholku Batzordea nortzuk osatuko duten zehaztea eta Batzordearen oinarrizko jardunerako arauak finkatzea, Batzordea osatu eta Legeak esleitzen dizkion funtzioak normaltasunez garatzeko.

Horregatik guztiagatik eta Euskadiko Museoei buruzko Legearen bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat, bidezkoa da organo hori osatzea eta haren funtzionamendu-araubidea finkatzea.

Ondorioz, Kultura sailburuaren proposamenez, Aholku Batzorde Juridikoaren iritzia entzun ondoren eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2008ko martxoaren 18ko bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*1. artikulua*.– Xedea.

Dekretu honen xedea da arautzea Euskadiko Museoen Aholku Batzordearen osaera, antolaketa eta funtzionamendu araubidea.

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE CULTURA

### 1932

DECRETO 54/2008 de 18 de marzo, del Consejo Asesor de Museos de Euskadi.

La ley 7/2006, de 1 de diciembre, de Museos de Euskadi, en su capítulo VII crea el Consejo Asesor de Museos de Euskadi, como un órgano de naturaleza consultiva del Gobierno Vasco en los asuntos relacionados con el ejercicio de las competencias y atribuciones establecidas en la citada Ley, determina sus funciones y señala que reglamentariamente se regulará su composición garantizando la participación de todos los sectores implicados en el Sistema Nacional de Museos de Euskadi.

A la vista de lo expuesto es necesario establecer y detallar la composición del Consejo Asesor de Museos y determinar sus reglas básicas de funcionamiento en aras a posibilitar su constitución y el normal desarrollo de las funciones que la Ley le encomienda.

Por todo ello, y de conformidad con lo previsto en la Disposición Adicional Segunda de la Ley de Museos de Euskadi procede la constitución de tal órgano y el establecimiento de su régimen de funcionamiento.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Cultura, oída la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en reunión celebrada el día 18 de marzo de 2008,

DISPONGO:

*Artículo 1*.– Objeto.

Es objeto del presente Decreto regular la composición, sistema de designación, organización y régimen de funcionamiento del Consejo Asesor de Museos de Euskadi.

*2. artikulua.*– Izaera eta atxikipena.

1.– Euskadiko Museoen Aholku Batzordea Eusko Jaurlaritzan kultura alorreko eskumenak dituen sailari atxikitako aholkularitza-organo bat da, nahiz eta bertako egitura hierarkikoan txertatuta ez egon, Legean bertan finkatutako eskumen eta aginpideak gauzatzearekin zerikusia duten gaietan Eusko Jaurlaritzaren organo aholkularia izatea helburu duena.

2.– Euskadiko Museoen Aholku Batzordearen egoitza aurreko puntuan aipaturiko sailaren bulegoetan egongo da, Gasteizen. Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko beste edozein tokitan ere egin ditzake bilkurak, bertako presidentearen proposamenez.

*3. artikulua.*– Funtzioak.

Euskadiko Museoen Aholku Batzordearen funtzioak Euskadiko Museoei buruzko abenduaren 1eko 7/2006 Legean aurreikusitakoak izango dira.

*4. artikulua.*– Osaera.

1.– Honako hauek osatuko dute Euskadiko Museoen Aholku Batzordea:

a) Presidentea: museoen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailburuordea.

b) Presidenteordea: museoen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako zuzendaria; presidentea kanpoan edo gaixorik badago edo legezko beste edozein arrazoi suertatzen bada, hark eskuordetzan emandako funtzioak beteko ditu.

c) Bokalak:

1) Museoen kudeaketan dedikazio profesional berariazkoa izango duen ordezkari bana Foru Aldundien aldetik, aldundian aldundiko funtzionamendu-arauei jarraituz izendatuak.

2) Museoen kudeaketan dedikazio profesional berariazkoa izango duen ordezkari bat Euskadiko Udalen Elkartearen aldetik (EUDEL), EUDELek berak izendatua.

3) Eusko Jaurlaritzan kultura alorreko eskumenak dituen sailaren titularrak izendatutako bi pertsona, gehienez, titularitatean edo kudeaketan Euskal Autonomia Erkidegoa partaide deneko museoek egindako proposamenen artetik aukeratuak.

4) Eusko Jaurlaritzan kultura alorreko eskumenak dituen sailaren titularrak izendatutako bi pertsona, gehienez, Euskadiko Museoen Sistema Nazionalean sartuta dauden titularitate publiko edo pribatuko gainerako museo eta bildumek egindako proposamenen artetik aukeratuak.

5) Eusko Jaurlaritzan kultura alorreko eskumenak dituen sailaren titularrak izendatutako bi pertsona, gehienez, museologiaren esparru espezializatua ongi ezagutzen dutenak.

*Artículo 2.*– Naturaleza y adscripción.

1.– El Consejo Asesor de Museos de Euskadi es un órgano consultivo adscrito al Departamento del Gobierno Vasco competente en materia del Cultura pero no integrado en su estructura jerárquica para el asesoramiento al Gobierno en el ejercicio de las competencias y atribuciones establecidas en la Ley de Museos de Euskadi.

2.– El Consejo Asesor de Museos de Euskadi tiene su sede en las dependencias de dicho Departamento situadas en Vitoria-Gasteiz. No obstante podrá celebrar sesiones en cualquier otro lugar del Territorio de la Comunidad Autónoma, a propuesta de su Presidente o Presidenta.

*Artículo 3.*– Funciones.

Son funciones del Consejo Asesor de Museos de Euskadi las previstas en la Ley 7/2006, de 1 de diciembre, de Museos de Euskadi.

*Artículo 4.*– Composición.

1.– El Consejo Asesor de Museos de Euskadi tendrá la siguiente composición:

a) Presidente o Presidenta: el Viceconsejero o la Viceconsejera del Gobierno Vasco competente en materia de museos.

b) Vicepresidente o Vicepresidenta: el Director o la Directora del Gobierno Vasco competente en materia de museos, quien sustituirá al Presidente/a en supuestos de vacante, ausencia, enfermedad u otra causa legal y ejercerá las funciones que le delegue.

c) Vocales:

1) Una persona con dedicación profesional específica en la gestión de museos en representación de cada una de las Diputaciones Forales y designadas por las mismas de acuerdo con sus propias normas de funcionamiento.

2) Una persona con dedicación profesional específica a la gestión de museos designada por Euskadiko Udalen Elkartea-Asociación de Municipios Vascos (EUDEL) y en su representación.

3) Un máximo de dos personas designadas por el o la titular del Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de cultura de entre las propuestas por aquellos museos en cuya titularidad o en cuya gestión participe la Comunidad Autónoma del País Vasco.

4) Un máximo de dos personas designadas por el o la titular del Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de cultura de entre las propuestas por el resto de museos y colecciones de titularidad pública y/o privada integrados en el Sistema Nacional de Museos de Euskadi.

5) Un máximo de dos personas conocedoras del ámbito profesional especializado en museología designadas por el o la titular del Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de cultura.

d) Idazkaria: Eusko Jaurlaritzan kultura alorreko eskumenak dituen zuzendaritzari atxikitako langileen artean presidenteak izendatutako pertsona bat. Hitzarekin baina botorik gabe jardungo du.

2.– Euskadiko Museoen Aholku Batzordeko presidenteak Batzordean aztertzen diren gaietan adituak diren pertsonak bileretan parte hartzea eska dezake. Pertsona horiek hitza izango dute, baina botorik ez.

*5. artikulua*.– Izendapena eta agintaldia.

1.– Eusko Jaurlaritzan kultura alorreko eskumenak dituen sailaren titularrak emandako agindu bidez izendatuko dira Euskadiko Museoen Batzordeko kideak, karguagatik izendatzen direnak izan ezik.

2.– Batzordekideen agintaldia lau urtekoa izango da, karguagatik izendatzen direnena izan ezik, eta behin eta berriz berritu ahal izango da beste lau urtetarako. Agintaldia amaitutakoan ere jarraituko dute beren funtzioak betetzen, harik eta haien ondorengo kide berrien izendapenak indarrean jartzen diren arte.

3.– Karguagatik izendatzen diren Euskadiko Museoen Aholkuko kideek automatikoki utziko dute Batzordea, kide izendatuak izateko kontuan izandako ezaugarri hori galtzen dutenean.

4.– Edozein gorabehera dela-eta hutsik gelditzen diren karguak hilabetean beteko dira, horren berri batzordeko idazkariari ematen zaionetik kontatzen hasita. Kargu berriaren agintealdiak aurrekoari amaitzeko gertatzen zaion epea iraungo du.

*6. artikulua*.– Euskadiko Museoen Aholku Batzordearen presidentea.

1.– Presidenteak honako funtzio hauek izango ditu, besteak beste:

a) Euskadiko Museoen Aholku Batzordearen ordezkari izatea.

b) Bileretarako deiak egitea Idazkaritzaren bitartez.

c) Bileren gai-zerrenda finkatzea.

d) Bilerei begira landu behar diren azterlanak zehaztea eta azterlan horiek zein batzordekidek egin behar dituzten erabakitzea.

e) Bilerei hasiera eta amaiera ematea.

f) Eztabaidak bideratzea: kideei hitza ematea, mintzaldiak moderatzea eta, hala badagokio, horien iraupena mugatzea, denon parte-hartzea ahalbidetzeko eta bileren bilakaera egokia bermatzeko.

g) Bere botoarekin sortzen diren berdinketak ebaztea.

h) Bere sinaduraren bidez, Euskadiko Museoen Aholku Batzordearen aktak balioestea.

d) Secretario o Secretaria: la persona designada por la Presidencia entre el personal adscrito a la Dirección del Gobierno Vasco competente en materia de Museos, que actuará con voz pero sin voto.

2.– El Presidente o la Presidenta del Consejo Asesor de Museos de Euskadi podrá autorizar la presencia en sus sesiones, o en parte de ellas, de personas especializadas en los temas que fueren objeto de tratamiento en las mismas, que en todo caso actuarán con voz y sin voto en el tema o temas que fundamentan su presencia.

*Artículo 5*.–Nombramiento y Mandato.

1.– El nombramiento de los o las miembros del Consejo Asesor de Museos de Euskadi, salvo el de aquellos o aquellas que lo sean por razón de su cargo, se efectuará por Orden del o de la titular del Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de cultura.

2.– El mandato de los o las miembros del Consejo, salvo el de los o las que lo sean por razón del cargo, será de cuatro años, renovable por períodos de igual duración. Una vez que expida su mandato, continuarán desempeñando sus funciones hasta que surta efecto el nombramiento de sus sucesores o sucesoras.

3.– Aquellas o aquellos miembros del Consejo Asesor de Museos de Euskadi que lo fueran por razón de su cargo, cesarán automáticamente con la pérdida de la condición en virtud de la cual fueron nombrados o nombradas.

4.– Las vacantes que se produjeran por cualquier causa serán cubiertas en el plazo de un mes desde que se comunique tal circunstancia al Secretario o Secretaria del Consejo y por el tiempo que resta de mandato de la persona a quien sustituya.

*Artículo 6*.– Presidente o Presidenta del Consejo Asesor de Museos de Euskadi.

1.– Las funciones del Presidenta o Presidenta serán, entre otras:

a) Representar al Consejo Asesor de Museos de Euskadi.

b) Convocar, a través de la Secretaría, sus sesiones.

c) Fijar el orden día de las sesiones.

d) Determinar los estudios que deban elaborarse para el desarrollo de las sesiones y designar los o las miembros del Consejo que hayan de realizarlos.

e) Abrir y levantar sesiones.

f) Dirigir las deliberaciones, dando la palabra a cada participante, moderando las intervenciones y limitando, en su caso, la duración de las mismas en aras de permitir la participación de todos ellos y de garantizar la buena marcha de las sesiones.

g) Decidir con su voto los empates que se puedan producir.

h) Autorizar con su firma las actas del Consejo Asesor de Museos de Euskadi.

i) Presidente karguari dagozkion gainerako funtzioak.

2.– Funtzio horiek Batzordearen presidenteordeari eman ahal zaizkio eskuordetzan.

7. *artikulua.*– Euskadiko Museoen Aholku Batzordearen idazkaria.

1.– Idazkariak honako funtzio hauek izango ditu, besteak beste:

a) Bileretan parte hartzea, hitzarekin baina botorik gabe.

b) Bileren gai-zerrenda prestatzea eta bideratzea, bai eta bertan aztertuko diren gaien inguruko dokumentazioa ere.

c) Batzordearen bileretarako deialdia egitea, presidentearen aginduz.

d) Batzordekideen komunikazio-egintzak jasotzea, hau da: jakin beharreko jakinarazpen, datu-eskaera, zuzenketa edo bestelako idazki oro.

e) Bileren aktak idaztea eta balioestea.

f) Presidentearen aginduz eta haren oniritziaz, onarturiko akta, irizpen eta erabakien ziurtagiriak ematea.

g) Euskadiko Museoen Aholku Batzordearen kontsulta, espediente eta gainerako dokumentuen sarrera-irteera erregistroa eramatea.

h) Kide anitzeko organoetako idazkariei dagozkien gainerako funtzioak.

2.– Idazkari-kargua hutsik badago, betetzen duena kanpoan edo gaixorik badago edo legezko beste edozein arrazoi suertatzen bada, Eusko Jaurlaritzan museoen alorreko eskumenak dituen zuzendaritzari atxikitako langileen artean presidenteak izendatutako pertsona batek jardun dezake bere ordez.

8. *artikulua.*– Euskadiko Museoen Aholku Batzordeko kideen eskubide eta betebeharrak.

Euskadiko Museoen Aholku Batzordeko kide guztiei dagokie:

a) Bileretara joatea eta bertan parte hartzea.

b) Araudi honetan ezarritako epean, aldez aurretik izatea bileren deialdiaren berri eta bileretako gai-zerrendaren berri, bai eta bere esku izatea gai horien gaineko dokumentuak eta informazioa ere, eta aurreko bilearen akta.

c) Botoa ematea, horren esanahia adieraztea eta, gehiengoarekin bat etorri zein ez etorri, boto partikularra ematea.

d) Galde-eskeak egitea.

e) Araudia errespetatuz jokatzea, bai eta bidezko isiltasunez eta zuhurtasunez ere, aztertu beharreko gaiek hala eskatzen dutenean.

f) Ordainsari bat jasotzea Batzordearen bileretara joatearen truke. Ordainsari hori bateragarria izango da bi-

i) Las demás que le sean inherentes a su condición de Presidente o Presidenta.

2.– Dichas funciones son delegables en el Vicepresidente o en la Vicepresidenta del Consejo.

*Artículo 7.*– Secretario o Secretaria del Consejo Asesor de Museos de Euskadi.

1.– Al Secretario o Secretaria del Consejo le corresponden, entre otras, las siguientes funciones:

a) Asistir a las reuniones del Consejo con voz y sin voto.

b) Preparar y cursar el orden del día de las sesiones del Consejo, así como la documentación necesaria relativa a los asuntos que hayan de tratarse en las mismas.

c) Efectuar la convocatoria de las sesiones del Consejo por orden del Presidente o de la Presidenta.

d) Recibir los actos de comunicación de los y las miembros con el Consejo y, por tanto, las notificaciones, peticiones de datos, rectificaciones o cualquier otra clase de escritos de los que deba tener conocimiento.

e) Redactar y autorizar las actas de las sesiones.

f) Expedir, por orden del Presidente o de la Presidenta y con su visto bueno, certificaciones de las actas, dictámenes y acuerdos aprobados.

g) Llevar el registro de entrada y salida de las consultas, expedientes y demás documentos del Consejo Asesor de Museos de Euskadi.

h) Las demás funciones inherentes a la secretaría de un órgano colegiado.

2.– En los casos de vacante, ausencia, enfermedad u otra causa legal el Secretario o Secretaria podrá ser sustituido o sustituida por la persona que designe el Presidente o Presidenta entre el personal adscrito a la Dirección del Gobierno Vasco competente en materia de museos.

*Artículo 8.*– Derechos y deberes de los y las miembros del Consejo Asesor de Museos de Euskadi.

A cada miembro del Consejo Asesor de Museos de Euskadi le corresponde:

a) Asistir a las sesiones y participar en las mismas.

b) Conocer con la antelación que se señale en el presente Reglamento la convocatoria y el orden del día de las sesiones y tener a su disposición los documentos e información sobre los temas que figuren en ellos, así como el acta de la sesión anterior.

c) Emitir su voto, expresando el sentido del mismo, así como formular voto particular concurrente o discrepante con el parecer de la mayoría.

d) Formular ruegos y preguntas.

e) Actuar conforme al presente reglamento y con el debido sigilo y reserva oportunos cuando así lo exija la naturaleza de los asuntos a tratar.

f) Percibir una compensación económica en concepto de asistencia a reuniones del Consejo, que será compati-

leretan parte hartzeak eska ditzakeen joan-etorrietarako gastuak ordaintzeko kalte-ordainekin. Bai parte hartzeagatiko ordainsariak bai joan-etorrietarako kalte-ordainak otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan zerbitzu-arrazoiengatik oro har aurreikusten diren baldintza, kopuru eta mugen arabera ordainduko dira.

Kidearen parte hartzea Batzordean Administrazio Publikoan betetzen duen kargu edo postuagatik gertatzen bada, ez da ordainsaririk emango.

g) Kide anitzeko organo bateko kide izateak dakartzan gainerako eskubide eta betebehar guztiak.

*9. artikulua.*– Euskadiko Museoen Aholku Batzordearen bilerak.

1.– Euskadiko Museoen Aholku Batzordea bilera ohikoetan edo berezietan bilduko da, lehenengo deialdian edo bigarrenean.

2.– Batzordea urtean behin bilduko da gutxienez, ohiko bileran, eta, bilera berezietan, presidenteak bere kabuz edo kideen gehiengoak hala eskaturik, bilerarako deia egiten duenean edo bere funtzioek hala eskatzen dutenean.

*10. artikulua.*– Euskadiko Museoen Aholku Batzordearen deialdiak.

1.– Euskadiko Museoen Aholku Batzordearen deialdiak presidentearen aginduz egingo dira, zazpi egun naturaleko aurrerapenarekin gutxienez. Deialdietan hauek adieraziko dira: bilera zein egun, toki eta ordutan egingo den eta gai-zerrenda.

2.– Presidentearen iritziz presakoak diren bileretan ez da nahitaezkoa izango deialdia aurrerapen horrekin egitea.

3.– Benetako balioa izan dezaten, bileren delako presatasun hori lehen-lehenengo aztergaia izango da, eta batzordekide gehienek berretsi beharko dute.

*11. artikulua.*– Bileren gai-zerrenda.

1.– Euskadiko Museoen Aholku Batzordeko edozein kidek gai-zerrendan punturen bat sartzeko eska diezaioke presidenteari, betiere behar besteko aurrerapenarekin egiten badu, 48 orduko aurrerapenarekin alegia, eta proposamenarekin batera azalpen-txosten bat aurkezten bada.

2.– Ezin da eztabaidatu edo erabaki gai-zerrendan jarri ez den gairik; eztabaidatu eta erabakitzeko, batzordekide guztiek egon behar dute bilduta, eta gehiengoak erabaki aztergaia presakoa dela.

*12. artikulua.*– Eratzea.

1.– Batzordea baliozko eran eratuko bada, kideen gehiengo osoa agertu beharko da bilkurara lehenengo deialdian.

ble con las indemnizaciones correspondientes a los desplazamientos que pueda originar su participación o concurrencia a las mismas. Tales compensaciones por asistencia, así como las indemnizaciones por desplazamiento se percibirán en las condiciones, cantidades y límites previstos con carácter general en el Decreto 16/1993, de 2 de febrero, sobre indemnizaciones por razones de servicio.

En ningún caso se devengarán asistencias cuando la pertenencia o participación en el Consejo esté determinada por el cargo o puesto de trabajo que se ocupe en la Administración Pública.

g) Cuantos otros derechos y deberes sean inherentes a su condición de miembros de un órgano colegiado.

*Artículo 9.*– Reuniones del Consejo Asesor de Museos de Euskadi.

1.– El Consejo Asesor de Museos de Euskadi podrá reunirse en sesiones de carácter ordinario o extraordinario, en primera o segunda convocatoria.

2.– El Consejo se reunirá con carácter ordinario una vez al año como mínimo. Con carácter extraordinario podrá reunirse a iniciativa del Presidente o de la Presidenta o a petición por escrito de la mayoría de sus miembros. siempre que se considere oportuno o lo exija el cumplimiento de sus funciones.

*Artículo 10.*– Convocatorias del Consejo Asesor de Museos de Euskadi.

1.– Las convocatorias del Consejo Asesor de Museos de Euskadi, serán realizadas por orden del Presidente o Presidenta con una antelación mínima de siete días naturales. En la convocatoria habrá de fijarse el orden de asuntos, el día, lugar y hora de celebración de la sesión.

2.– Quedarán dispensadas de dicho requisito de antelación mínima aquellas sesiones que a juicio del Presidente o Presidenta revistan urgencia.

3.– Para que se desarrollen válidamente, la urgencia de tales reuniones deberá ser ratificada como primer punto de la sesión por la mayoría de los miembros del órgano.

*Artículo 11.*– Orden del Día de las reuniones.

1.– Cualquier miembro del Consejo Asesor de Museos de Euskadi podrá proponer al Presidente o Presidenta la inclusión de algún punto en el Orden del Día, siempre que lo haga con un mínimo de 48 horas de antelación y acompañe a su propuesta una sucinta memoria justificativa de la propuesta.

2.– No podrá ser objeto de deliberación o acuerdo ningún asunto que no figure incluido en el Orden del Día, salvo que estén presentes todos los y las miembros del Consejo y sea declarada la urgencia del asunto por el voto favorable de la mayoría absoluta de miembros.

*Artículo 12.*– Constitución.

1.– El Consejo quedará válidamente constituido cuando concurran en primera convocatoria la mayoría de los o las miembros que lo formen.

2.– Quorum nahikorik ez badago, Batzordea bigarren deialdian eratu ahal izango da, oraingoan boto-eskubidea duten kideen herena gutxienez bertan egonez gero.

3.– Edonola ere, presidenteak eta idazkariak, edo haien ordezkoek, nahitaez egon beharko dute bilerak baliozkoak izateko.

*13. artikulua.*– Erabakiak hartzea.

1.– Erabakiak, txostenak, gomendioak eta gainerako testuak bertaratutako kideen gehiengo soilez onetsiko dira. Berdinketak presidentearen kalitatezko botoaren bitartez ebatziko dira.

2.– Botoa zuzenekoa, pertsonala eta eskuordeezina izango da. Botoa sekretua izango da edozein kidek presidenteari hala izatea eskatzen dionean.

3.– Batzordearen erabakiak aktan jasoko dira, zeina formulatuko baita Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak ezarritako prozeduraren arabera.

4.– Batzordearen erabakiak eta txostenak ez dira inola ere lotesleak izango.

XEDAPEN GEHIGARRIA.– Museoen Aholku Batzordea lehenengoz osatzeko proposamena.

Dekretu honen 4. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, deialdi zuzena jasoko ez duten lehenengo batzordekideak izendatzeko, honela jokatuko da:

Dekretu hau indarrean jarri eta hilabeteko epean, kultura alorreko eskumenak dituen sailaren titularrak Euskadiko Museoen Sistema Nazionalean sartuta dauden erakunde eta museoetara joko du, Euskadiko Museoen Aholku Batzordeko kideak izango diren pertsonen izendapena proposa eta onar dezatela eskatuz.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.***– Kultura Sailaren egitura organikoa ezartzen duen Dekretua aldatzea.

Otsailaren 14ko 25/2006 Dekretuaren 2.3 artikulua, Sailaren kide anitzeko organoak ezartzen dituena, aldatu egiten da, eta 3.m idatz-zatia gehituko zaio, hauxe alegia:

> «2.3. artikulua.
>
> m.– Euskadiko Museoen Aholku Batzordea, Euskadiko Museoei buruzko abenduaren 1eko 7/2006 Legean sortua.»

***Bigarrena.***– Araubide osagarria.

Dekretu honek berariaz arautzen ez dituen gaietan, Batzordearen funtzionamenduari begira, Herri Admi-

2.– Si no existiese quórum suficiente, se podrá constituir en segunda convocatoria, siendo en este caso suficiente con la presencia de la tercera parte de sus miembros.

3.– La celebración válida de las sesiones requerirá, en todo caso, la presencia del Presidente o Presidenta y del Secretario o Secretaria, o de las personas que les sustituyan.

***Artículo 13.***– Adopción de acuerdos.

1.– Los acuerdos, informes, recomendaciones y demás textos, serán adoptados por mayoría simple de los/as asistentes, dirimiéndose los empates mediante el voto de calidad de la Presidencia.

2.– El sistema de votación responderá a los principios de voto directo, personal e indelegable, debiendo garantizarse el voto secreto cuando cualquiera de los o las miembros lo solicite a la Presidencia.

3.– Los acuerdos del Consejo constarán en acta, que se formulará con los contenidos y procedimiento fijado en la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

4.– Los acuerdos que se adopten y los informes que se elaboren por el Consejo no tendrán en ningún caso carácter vinculante.

DISPOSICIÓN ADICIONAL.– Propuesta de composición del primer Consejo Asesor de Museos.

A los efectos previstos en el artículo 4, la designación de los primeros miembros del Consejo respecto a los que no existe un llamamiento directo, se efectuará conforme a la siguiente regla:

– En el plazo de un mes contado a partir de la entrada en vigor del presente Decreto, la persona titular del Departamento competente en materia de Cultura se dirigirá a aquellas Entidades y Museos que formen parte del Sistema Nacional de Museos, recabando la propuesta y la aceptación del cargo de las personas que vayan a formar parte del Consejo Asesor de Museos de Euskadi.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.***– Modificación del Decreto de estructura orgánica del Departamento de Cultura.

Se modifica el artículo 2.3 del Decreto 25/2006, de 14 de febrero, por el que se establecen sus Órganos Colegiados, añadiéndole el apartado 3.m. que en lo sucesivo quedará redactado como sigue:

> «Artículo 2.3.
>
> m) Consejo Asesor de Museos de Euskadi, creado por Ley 7/2006, de 1 de diciembre, de Museos de Euskadi».

***Segunda.***– Supletoriedad.

En todo lo no previsto en el presente Decreto, el funcionamiento del Consejo se ajustará a lo dispuesto pa-

nistrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen I. tituluko II. kapituluan kide anitzeko organoei buruz xedatutakoa aplikatuko da.

*Hirugarrena.–* Indarrean jartzea.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2008ko martxoaren 18an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Kultura sailburua,
MIREN KARMELE AZKARATE VILLAR.

ra los órganos colegiados en el Capítulo II del Título I de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Tercera.–* Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial de Euskadi.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 18 de marzo de 2008.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Cultura,
MIREN KARMELE AZKARATE VILLAR.

# Agintariak eta Langileria

## Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

### JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

### 1933

60/2008 DEKRETUA, apirilaren 1ekoa, Kabinetearen zuzendaria kargutik kentzea xedatzen duena.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 18. artikuluko j) idatz-zatian, 26. artikuluko 6. paragrafoan eta 29. artikuluan ezarritakoaren arabera, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2008ko apirilaren 1ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe,

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* María Aránzazu Fernández de Jáuregui Sáez de Nanclares andrea Kabinetearen zuzendari kargutik kentzea, beste kargu bat beteko baitu Administrazioan, eta, bide batez, egindako lanagatik eskerrak ematea.

*2. artikulua.–* Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2008ko apirilaren 1ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
JOSEBA AZCÁRRAGA RODERO.

# Autoridades y Personal

## Nombramientos, Situaciones e Incidencias

### DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

### 1933

DECRETO 60/2008, de 1 de abril, por el que se dispone el cese de la Directora de Gabinete.

De conformidad con lo dispuesto en los artículos 18, apartado j), 26, apartado 6, y 29 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, a propuesta del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 1 de abril de 2008,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Cesar como Directora de Gabinete a D.ª María Aránzazu Fernández de Jáuregui Sáez de Nanclares, por pasar a ocupar otro cargo en la Administración, agradeciéndole los servicios prestados.

*Artículo 2.–* El presente Decreto surtirá efectos el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 1 de abril de 2008.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZCÁRRAGA RODERO.